

*Itun Berria*. Elizen Arteko Biblia. Bibli Elkarte Batuak (Sociedades Biblicas Unidas). PAX Argitaletxea. 1983.

Liburu hau, bere sarreran aitortzen denez, 1977tik Elizen Arteko Biblian aritu direnak burutua da. Bereziki, Eliza Katolikoaren eta Bibli Elkarte Batuaren artean.

Grekerazkotik egindako itzulpena da, eta ez Vulgatatik. Hortarako The Greek New Testament (Third Edition, United Bible Societies) testu kritikoa oinarritzat eta abiapuntutzat hartuaz.

Hiru urte lehenago argitaratua da Iruñea, Baiona, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutien *Itun Berria* (1980) eta Bibli Elkarte Batuak atera duenetik bada aski desberdintasun. Euskara batuan eta Biblia gunean berdintsuak badira ere, itzulpen aski desberdinak dira adieraztez. Esate baterako, hemen «sos» dena, bestean «txanpon»; hemen «dirutegi» dena, bestean «atabaka» eta holakoak. Orduango diru izenak erabili ezinik egungo jendeak uler dezan, zeren haiek «atabaka» erabiltzen zutela jakitea ere urrutitxo joatea bait da. Bestalde, Ebanjelistek badute euskararen lehentasun bat Leizarraga eta Urte-ren bidez eta horri oratuz Testamendu Berria izenburutzat gordetzea ere ez zen gaizki. Zeren euskaldunarentzat, *Ituna*, iluna gertatzen bait da. Heiñ batean, Testamendu da garbizale direnentzat eta ez alderantziz.

Liburuaren aurkezpen laburra Argitalpen-Batzordeak Donostian 1983ko urtarrilaren 25ean egina da. Lastima da sarrera hau gainerako testuaren mailakoa ez izatea. Hemen, protestanteek ez dute izan axola handirik, zeren beharrezkoa bai zuen norbaitek orraztaperen bat ematea hutsik larrienak kentzeko behinik-pehin. Besterik da sarrera orokorra, baina batez ere testu itzulia.

Testu itzulian, euskara jator emateaz gainera Biblia bera funtsez adieraztea. Liburuaren egitura non eta nola oinarritzen den oso ondo adierazten da aurkezpenean: Itzulpenaz aparte, eranskin askoz hornitu eta aberastu da. Osagarri asko daroa

liburuak, berezko testuaz gainera. Lehenik Sarrera Orokorra dator. Gain-gaineko ikuspegia darama horrek Itun Berria osoari buruz, eta berori osatzen duten liburuetatik bakoitzari buruz. Hurrena, Biblia osoko liburuen zerrenda dator. Liburuon izenetan, orain arteko izenak kontutan hartu dira gehienbatean; batzutan, halere, izen berriak eman beharra ikusi da. Segidan, Itun Berriko liburuak datoz hurrenez hurren. Bakoitzari sarreratxo bana eman zaio, liburuaren edukina gain-gainetik azalduz. Orri-oinetan beste osagarriok eman dira: oharrak, alde batetik eta erreferentziak bestetik. Azkenean, lagungarri, hitz-saila eta segidan hiztegi arrunta.

Liburuarekin batean iritsi zitzaidan Audelino González Villa-ren hilberria. Igazko azaroaren 4an pausatu zen 83 urtekin bere sorterri zen Leon-en. Audelino, gizon atsegin hura, albaite roa zen ogibidez, baina Bibliazale amorratua bere gogoz. Bibliofilo bezala, Biblia zahar biltzaile nabarmendu zen eta kolekzio interesgarria lortu. Esaten denez, Espainiako liburutegi partikularrik hoberena omen zuen Biblia kolekzioz. Bere liburutegi hortan euskarazkoak ez bazituen eta horiei buruz mintzatzean ezagutu nuen bera. Gainera, sei urte dira Donostian Ebanjelistek Biblia astea eratzten hasi zirela. Hiru urtez egin zen eta Manuel Corral eta Juan M.<sup>a</sup> Olaizolak antolatua bazen ere Audelino-ren laguntza izan zuten. Lastima izan zen antolakizun haiek jarraipenik gabe gelditzea.

*J. S. M.*